

Ikastaro honetan, lurraldearen defentsarako agenda feministaren funtsezko gaiak jorratuko ditugu, bai maila teorikoan, bai Erdialdeko Amerikako eta Euskal Herriko erakundeen kasu praktikoak aintzat hartuta.

Gure lurraldearen defentsaren kontzeptuak, gure gorputza beraren defentsa hartzen du oinarri gisa eta, beraz, lurraldearen eta herri-ondasunen defentsarako prozesuez gain, gorputz eta sexu eskubideei dagokien guztia ere hartzen du baitan. Baina ez soilik ugalketarekin zerikusia dutenak, baita queer eta gorputz ez bitarren gozamen askearekin eta eskubideekin harremana duten guztiak ere. Funtsezkoa iruditzen zaigu gorputz eta lurraldearen arteko lotura hori finkatzea. Era berean, prestakuntza-prozesu feministar horretan emakume migraue eta arrazializatuen esperientziak eta ezagutzak gehitzea guztiz ezinbestekoa dela uste dugu, migrazio-prozesuetan egindako ikasketak eta arrazakeriaren aurkako erresistentziak ekarpen handia egin behar baitiote gorputz eta lurraldearen defentsarenguruko hausnarketa honi.

Prestakuntza-saioen bidez, taldean hausnarketak bideratu nahi ditugu, elkartasunetik sistema hegemoniko zapaltzaile honen aurka altxatzen diren zainketak eta esperientziak ardatz nagusi hartuta.

IZEN EMATEAK HEZKUNTZA@LUMALTIK.ORG

EDUKIERA MUGATUA

lumaltik
HERRIAK

Politiki



APIRILAK 21 ASTEAZKENA 10:00 → 14:00

Migrazioak eta zaintzak

DINAMIZATZAILEA **Cony Carranza**
HERRI HEZITZAILE FEMINISTA

APIRILAK 28 ASTEAZKENA 10:00 → 14:00

Arrazakeria, heteroarautasuna eta disidentziak

DINAMIZATZAILEA **Jesenia** RAÍZES

MAIATZAK 5 ASTEAZKENA 10:00 → 14:00

Lurren idokitzea, estraktibismoa eta Ongi Bixitzea

DINAMIZATZAILEAK **Dalila Argueta**
HONDURASEKO GIZA ESKUBIDEEN
DEFENDATZAILEEN SAREA

Olatz Talavera
ARTEA SAREA

MAIATZAK 12 ASTEAZKENA 10:00 → 14:00

Ugaltze eta Sexu Eskubideak eta Emakumeon Gorputzak

DINAMIZATZAILEA **Aitziber Buñuelos**
ERAIKIZ KOLEKTIBOA

IKASTAROA

LURRALDEAREN DEFENTSARA BIDERATUTAKO FEMINISMOAK



APIRILAK 21 → MAIATZAK 12

Emakumeen Etxea
OKENDO KALEA 9. DONOSTIA